



PABLO S. QUIZA

Ehunka lagun bildu zen Ezkurdi pilotalekuan EGUNKARIA-ren 10. urteurreneko herri bazkarian.

EGUNKARIAREN URTEURRENA. Xanpaina banatu ondoren herri bazkaria egin zen Durango Ezkurdi pilotalekuan

Festa giroa hamargarren urtebetetzean

Jende ugari bildu
zuten atzo
EGUNKARIAREN
urteurrena
ospatzeko egindako
ekitaldiek

Juan Luis Zabala | **DURANGO**

Hamargarren urtebetetzea giro onenean ospatu zuen atzo euskaldunon EGUNKARIAk Durango, bi ekitaldi jendetsurekin: lehenengoan topa egin zuten eguerdi-eguerdian EGUNKARIAREN gunean; bigarrena herri bazkaria izan zen, 14:30ean, Ezkurdi frontoian.

Martin Ugalde EGUNKARIAKO ohorezko lehendakariak eta Iñaki Uriak kontseilari ordezkariak hitzaldi labur bana egin zuen topa egin aurretik, ondoren EGUNKARIAKO hainbat ordezkari zituztela, hala nola Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealda, Jose Mari Sors eta Txema Auzmendi.

EGUNKARIAK gero eta irakurle gehiago dituelako pozik agertu arren, azken urteetan galdu dituen bi irakurle handi izan zituen gogoan bere hitzaldian Martin Ugaldek. «Gaur hamar urte, gine-nak ginela, hemen ginen denok, hasierak beti izan dira hainbesteko-ak», esan zuen. «Neu kenketak egitera natorki-zue. Hamar urte geroago kontatzen bagara, amerikar erara ez bada behintzat, euskal era sinplera, bi faltako lirakeke seguru: Joxemi eta Joseba; izen-abize-

GOGOAN

Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka izan zituen gogoan Martin Ugaldek topa egin zutenean

nez Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka. Nahas gintezke amerikarrak bezala, baina euskara leial garbian beti bi falta: bat saltzen, bestea irakurtzen, eta beti euskaraz biak».

Iñaki Uriak duela hamar urte jende askok EGUNKARIAREN etor-

kizunaz agertutako zalantzak ekarri zituen gogora, eta hamargarren urtebetetzean EGUNKARIA berri-turik eta indarturik plazaratzeak zalantza haiek gainditu egin direla erakusten

duela esan zuen. Hamar urteotan lan asko egin dela baina aurrera begira ere asko dagoela egiteko azpimarratu zuen Uriak, ekitaldian bildutako guz-

tiei zorionak eta eskerrak eman aurretik.

Ondoren, xanpaina banatu zen EGUNKARIAREN gunean bildutakoen artean. Ikusle asko izan zituen egun osoan zehar gune horretan ikus daitekeen EGUNKARIA buruzko erakusketak, baina eguerdian izan zen jendearen emana inoizko handien. Nolanahi ere, karpape osoan zabaldu ziren EGUNKARIAREN hamargarren urteurrena ospatzeko xanpain botilak, aurretik EGUNKARIAK bazter guztietara baitzituen banatuak.

Ospakizun horiek Ezkurdi pilotalekuan izan zuten jarraipena, hainbat lagun bildu zituen herri bazkari batekin. Han izan ziren, EGUNKARIAKO ordezkari nagusiekin batera, Haritz Lopategi, Jon Enbeita, Fito Rodriguez, Tasio Erkizia, Eugenio

Arraiza, Niko Moreno eta euskal kulturaren eta politikaren munduko beste hainbat pertsonaia ezagun. Bazkaria Haritz Lopategi eta Jon Enbeitaren bertso saio batekin amaitu zen.

Gaur Egunkariaren Eguna

Gaur ere protagonismo handia izango du EGUNKARIAK Durango-ko Azokan, hainbat ekitaldiko ardatz izango baita. Eguerdiko 12:00etan Irene Arraras EGUNKARIAKO zuzentzaileak *Hitza aje, lantegi eta gezi: kazetari estilo samur baten bila* hitzaldia emango du, lanbidean izandako esperientzian oinarriturik. 19:00etan Martxelo Ota-

mendi EGUNKARIA-ko zuzendaria *Komunikazioa eta Euskal Herria* gaia aztertuko du.

Azkenik, ospakizunei amaiera emateko, 22:00etan, musika, dantza eta bertsolaritza elkartzen dituen emanaldi bat izango da, San Agustin kulturgunean,

EGUNKARIAK eta Durango Udalak eta AEK-k antolatutako: Laxo taldearen *Upeletan erronka*. Honako hauek dira oholtza gainean ariko direnak: Jon Maia, Kimetz Larrañaga, Oier

Imaz eta Iban Agote dantzariak, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak eta Ansozregi eta Larrañaga trikitaliak.



PABLO S. QUIZA

Joan Mari Torrealda, Iñaki Uriak, Jose Mari Sors, Martin Ugalde eta Martxelo Otamendi topa egiten EGUNKARIA-ren gunean.